



## **16. AKTA**

2003ko abenduaren 19an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

TOKIA: Pasaiako hirian eta bertako Udaletxean.

DATA: Bi mila eta hiruko abenduak 19.

ETORRIAK:

Lore Suárez Linazasoro a.  
Lucía Querido Noceti a.  
Xabier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatea.

Lehenengo deialdian eta Izaskun Gómez Cermeño andre Alkatearen presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko Idazkari jauna bertan delarik, bildu dira goian aipatu jaun-andre zinegotziak Gobernu Batzordearen batzarraldia egiteko horretarako kurtsaturiko deialdiaren arabera. Ez da agertu Jesús M<sup>a</sup> García Garde jaun zinegotzia.

Lehendakaritzak, konstataturik Gobernu Batzordea eratzeko behar hainbat partaide etorri dela, irekitzat eman du batzarraldia 09:00etan, ondoren gazerrendako puntuak aztertzeari ekinez.

### **1.- Hurrenez hurren 03-11-20 eta 03-12-04ko aktak, 14. eta 12. batzarraldietakoak irakurri eta onartzea.**

Bertakoen kontsiderazioan jarririk atalburuan aipatzen diren aktak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez erabaki du ontzat eman beren osoan eta dagokien Akta-liburuan transkribatzea.

### **2.- 12/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 12/03 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, EHUN ETA HOGEITA LAU MILA ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA SEI ZENTIMOKO (124.099,86 euroko) kantitatez.



### **3.- Teilatua ordezkatzeko San Joan kaleko 80ko jabekideen subentzioaz 2003ko urriaren 22ko akordioaren aurka erreposizio errekurtsua.**

Ikusirik FLORENTINA MORLA LUENGO eta NURIA DÍAZ PANIAGUA andreek formulariko Erreposizio Errekurtsua Gobernu Batzorde honek 2003ko urriaren 22an hartutako akordioaren aurrean, non eskatzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren exentzia eta tasa urbanistikoak Pasaia udalerriko San Joan kaleko 80ko etxearen teilatua ordezkatzeko obrei buruz, aparteko zirkunstantzia meteorologikoez hondatua gertatu zelako.

Kontuan izanik inoiz ere ez zaiela zergen paguaz exoneratu helegileei, baizik eta aipatu zerga eta tasen %50i dagokion kantitatez subentzia eman izan zaiela.

Kontuan izanik aurrekontuan badagoela kontsignazioa, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Pasaia udalerrri honetako San Joan kaleko 80ko Jabekideei emandako subentzia areagotzea 629,75 eurotan eta beraz, subentzio osoa izango da 1.259,5 eurokoa.

BIGARREN.- Akordio hau betetzeko lizentzian eskatzen den obra-amaieraren dokumentazioa aurkeztu beharko da.

HIRUGARREN.- Subentzio hau abonatzeko aurretik dagozkion tasak eta zergak ordaindu beharko dira.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea lezgozkiekeen errekurtsuekin.

### **4.- Diziplinako espedientea eteteko eskaera**

Espediente honek babestu behar diren datu pertsonalak ditu.

### **5.- Ur, estolderia eta zaborraren tasak ordaintzeko subentzia.**

Gizarte Ekintzaren Zerbitzuak izapidatu duelarik ondoren aipatzen diren zergaduruek aurkeztutako Ur, Estolderia eta Zaborraren tasak ordaintzeko subentzio-eskaerak.

Bilketa eta Errenten Zerbitzuak behin eginik dagokion kudeaketaren Arauak agindutako errebisioak.



Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Gizarte Zerbitzuen Saileko zinegotzi-delegatuak 2003ko azaroaren 24ean egindako proposamenez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- Behar bezala diligentziatutako espedientean agertzen den zerrendako onuradunei abonatzea ur, estolderia eta zaborren tasen pagurako subentzioak 4.744,16 euroko kantitatez.

Hau guztia udal aurrekontuko 2.09.00.310.441.10.02 partidaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legezkiekeen errekurtsioak aditzera emanez.

### **6.- Euskararen alorreko jardueren 2003ko subentzioak.**

#### **A) Euskararen aldeko jardueretan lan egiten duten entitate eta elkargoei subentzioak.**

Euskarako Udal Batzorde Informatiboko Lehendakariak 2003ko azaroaren 6an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

ERABAKI DU

LEHENENGO.- 2003an euskararen alde lan egin duten entitate eta elkargoei hurrengo subentzioak ematea:

- Nafarroa oinez	900 euro
- Kilometroak	600 euro
- Herri urrats	900 euro
- Araba euskaraz	600 euro
- Ibilaldia	600 euro
- Korrika	900 euro
- Euskararen gizarte erakundeen	
Kontseilua	2105 euro
- Elhuyar Fundazioa	360 euro
- Hizkuntza Eskubideen Behatokia	
	360 euros

GUZTIRA 7.325 euro



BIGARREN.- Laguntza eskatzaileei jakitera ematea 2004tik aurrera subentzioak emateko kriterioa izango dela Pasaian kokatutako elkargoak izan behar dutela edota beren lanak Udal honetan zuzenean ondorena izatea.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 10-481-455-10-01 partida eta A-1507/2003 Baimenduaren kargura.

**B) Euskara ikasten ari diren pasaitarrei subentzioak.**

Euskarako Udal Batzorde Informatiboko Lehendakariak 2003ko abenduaren 12an egindako proposamenez eta Gobernu Batzordeak 1992ko ekainaren 1ean hartutako akordioa aplikatuz, non hartu baitziren aipatu subentzioak emateko kriterioak, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Euskara ikasten ari den hurrengo pasaitarrari ondorengo subentzioa ematea:

HIGUERO BARANDALLA, MARIA TERESA	194,50 euro
GUZTIRA	<hr/> 194,50 euro

=====

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko A-1498/03 Baimenduaren kargura.

**7.- Kultur Elkargoei 2003ko subentzioak.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez eta Kultura eta Hezkuntzako Zinegotzi delegatuak 2003ko abenduaren 17an egindako proposamenez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren Kultur Elkargoei hurrengo subentzioak ematea 2003ko kultur programei dagozkienak:

- ALKARTASUNA DANTZA TALDEA	2.165,00 Euro
- C.A.S. AZKUENE	585,96 Euro
- C.A.S. GATZAGA	1.039,28 Euro
- FATO CULTURAL DANIEL CASTELAO	911,26 Euro
- GRUPO EXPRESION DE TRINTXERPE	508,05 Euro
- GURE KALPARRA BIZILAGUN ELK.	1.263,00 Euro
- KEXALDI	430,00 Euro
- TRINTXER KULTURALA	2.386,94 Euro
GUZTIRA	9.298,49 Euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 05.481.451.10.01

BIGARREN.- Subentzioak emango zaizkien Elkargoekin konbenioak suskribatuko dira beroiek eta udalaren arteko harremanak arautu asmoz.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsoekin.

### **8.- Gazte Taldeei 2003ko subentzioak.**

Gazteria eta Kirolen Zinegotzi Delegatuak 2003ko abenduaren 12an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

## E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Ondoren aipatzen diren gazte taldeei hurrengo subentzioak ematea:

A) Gazteriaren urteko jarduerentzat:

- GRUPO T.L. EKAITZA	3.449,01 euro
- GRUPO T.L. BOVEDA	4.213,24 euro
- GRUPO T.L. TXIMISTA	614,22 euro
- GRUPO T.L. TXOLARTE (Atzegi)	1.877,92 euro
- GRUPO T. INTERRUPTUS	3.231,35 euro
GUZTIRA	13.385,74 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1218/03 Baimenduaren kargura.

B) Kanpamentuentzat

- GRUPO T.L. EKAITZA 2.753,73 euro
- GRUPO T.L. BOVEDA 4.480,00 euro
- GRUPO T.L. GAZTE TALDE 1.476,45 euro
- GUZTIRA 8.710,18 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1219/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

### **9.- Azkuene-Ulia-Erreterria eremua urbanizatzea obraren 6. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 6.

Obra: Trintxerpeko Azkuene-Ulia-Erreterria eremua urbanizatzea.

Obrako zuzendariak: Iñaki Ormazabal jauna (Udal Arkitektoa) eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta jauna (Udal Aparejadorea).

Enpresa kontratista: CONSTRUCCIONES OZIO, S.L.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HAMABI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (72.171,16 euro).

Indarreango udal-aurrekontuko D-369/03 Disposamenduaren kargura.

### **10.- Azkuene-Ulia-Erreterria eremua urbanizatzea obraren kalitatearen segurtasun eta osasun eta kontrolaren Kontsultategi Kontratuaren 6. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka: 6.

Obra: Trintxerpeko Azkuene-Ulia-Erreterria eremua urbanizatzea obraren Segurtasun eta Osasun gehi Kalitatearen Kontrola.

Obrako zuzendariak: Iñaki Ormazabal jauna (Udal Arkitektoa) eta Jose M<sup>a</sup> Irazusta jauna (Udal Aparejadorea).

Enpresa kontratista: CONSTRUCCIONES OZIO, S.L.

Zenbatekoa: HIRUROGEITA HAMABI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HAMASEI ZENTIMO (72.171,16 euro).



Indarreango udal-aurrekontuko D-369/03 Disposamenduaren kargura.

### **11.- Ekimen urbanizatzaileen laguntzei buruz 2003ko urriaren 22ko akordioan okerra zuzentzea.**

Gobernu Batzordeak ontzat eman zuen 2003ko urrian Pasaiako San Joan kaleko Jabekideei 879,55 euroko subentzioa ematea.

Subentzio hau E. I. eta O. gaineko Zerga eta Eraikuntzen eta Obren eta tasa urbanistikoaren %50i dagokiona da emandako lizentziari dagokiona.

Gobernu Batzorde honek erabakirik aurreko kriterioa modifikatzea Pasaia udalerrri honetako San Joan kaleko 80ko eraikinaren kasuan eta berdintasun printzipioaren izenean, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Aurreko akordioa zuzentzea, hots, 94ko jabekideei 1.914,10 euroko subentzioa ematea Ekimen Urbanizatzaileak direla eta 2003ko urtarrilaren hondarrean gertatutako haizete indartsuaren ondorioz kaltetua gertatu zen teiltua ordezkatzeko obregatik, kontuan izanik aipatu zirkunstantzia meteorologikoa aparteko izaerakoa izan zela.

BIGARREN.- Subentzioaren eskatzaileei jakinaraztea akordio hau gauzatzeko aurretik dagozkion zerga eta tasa likidatu behar direla .

HIRUGARREN.- Subentzio hau abonatzeko aurrez tasa eta likidatutako zergak ordaindu beharko dira.

LAUGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

### **12.- Hainbat ondare erantzukizuneko eskariak.**

#### **A) M<sup>a</sup> Teresa Cantero Rodríguez andreak egindako ondare erantzukizuneko eskaria.**

M<sup>a</sup> Teresa Cantero Rodríguez andreak ondare erantzukizuneko eskaria egin zuen 2003ko irailaren 23an.

Zehazki, 1.098,18 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari, Udal langile batek kimaketa lanak burutzen ari zenean bere kotxean (SS-4767-AN) egindako kalteengatik



Udal lorezainak onartu du berak egin zizkiola kalteak kotxeari.

Beraz, Gobernu Batzordeak aho batez zera

**ERABAKITZEN DU**

**LEHENENGOA.-** Baiestea M<sup>a</sup> Teresa Cantero Rodríguez andreak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria eta 1.098,18 euroko kalte-ordaina ordaintzeko agintzea.

**BIGARRENA.-** Udalak 901,52 euro (hau da frankizia) ordainduko ditu, eta beste 196,66 euroak berriz Allianz Udalaren aseguro-etxeak ordainduko dizkio eskatzaileari.

**HIRUGARRENA.-** Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

### **B) Gorka Fernández De la Granja jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Gorka Fernández De la Granja jaunak, ondare erantzukizuneko eskaria egin zuen 2003ko azaroaren 5ean. Zehazki, bere etxean jasandako kalteak ordaintzeko eskatzen dio Udaletxeari.

Udal aseguro-etxearen perito tasatzaileak txostena egin du, eta bertan kalteak 2.112 eurotan baloratzen dira. Hau guztia kontuan, Gobernu Batzordeak aho batez zera

**ERABAKITZEN DU**

**LEHENENGOA.-** Baiestea Gorka Fernández De la Granja jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria eta 2.112 euroko kalte-ordaina ordaintzeko agintzea.

**BIGARRENA.-** Udalak 901,52 euro (hau da frankizia) ordainduko ditu; beste 1.210,48 euroak berriz Allianz Udalaren aseguro-etxeak ordainduko dizkio eskatzaileari.

**HIRUGARRENA.-** Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

### **C) Julio Costas Ezkurdia jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Julio Costas Ezkurdia jaunak ondare erantzukizuneko eskaria egin zuen 2003ko maiatzaren 20an. Zehazki, 2.752,16 euroko kalte-ordaina eskatzen dio Udalari bere kotxeak jasandako kalteengatik Pasai San Pedroko pilotalekutik eroritako harriak direla eta.

Udaltzaingoak gai horretaz eginiko txostenaren arabera frogatua gelditzen da Udalaren erantzukizuna salatutako egintzetan. Hau guztia kontuan, Gobernu Batzordeak aho batez zera



## ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Baiestea Julio Costas Ezkurdia jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria eta 2.752,16 euroko kalte-ordaina ordaintzeko agintzea.

BIGARRENA.- Udalak 901,52 euroak (hau da frankizia) ordainduko ditu, beste 1.850,64 euroak berriz Julio Costas Ezkurdia jaunak Allianz aseguro etxeari eskatu beharko dizkio.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

### **D) Javier Morente Iturzaeta jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Javier Morente Iturzaeta jaunak ondare erantzukizuneko eskaria egin zion Udalari 2003ko uztailaren 5ean. Zehazki, zezenketak zirela eta bere jabetzapeko lokaleko pertsianetan jasan zituen kalteengatik

Eskaria osatu gabe zegoenez, Udalak osatzeko eskaria egin zion 2003ko abuztuaren 14an, osatu ezean espedientea artxibatuko zela ohartaraziz.

Badira hiru hilabete baino gehiago abisu hori egin zitzaienetik, eta ez du inolako agiririk aurkeztu.

Beraz legeak (1) aurreikusten duen bezala, Gobernu Batzordeak aho batez zera

## ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Espedientea iraungitzea eta beraz orain arte egindako jarduketa guztiak artxibatzea.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

(1) 1992ko azaroaren 26ko Legea, Prozedura Administratiboari buruzkoaren 92.artikulua.

### **E) Carmen Aramberria Zulaica andreak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Carmen Aramberria Zulaica andreak ondare erantzukizuneko eskaria egin zion Udalari 2003ko otsailaren 4an. Zehazki, Pasai Donibaneko Zurruna aldeko eskaileretan erori zenean, eskumuturrean zein bere betaurrekoetan jasan zituen kalteengatik.

Eskaria osatu gabe zegoenez, Udalak osatzeko eskaria egin zion 2003ko maiatzaren 5ean, osatu ezean espedientea artxibatuko zela ohartaraziz.

Badira hiru hilabete baino gehiago abisu hori egin zitzaionetik eta ez du inolako agiririk aurkeztu.

Beraz legeak (1) aurreikusten duen bezala, Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Espedientea iraungitzea eta beraz orain arte egindako jarduketa guztiak artxibatzea.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

(1) 1992ko azaroaren 26ko Legea, Prozedura Administratiboari buruzkoaren 92. artikulua.

#### **F) Xabier Barquin Alvarez jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Xabier Barquin Alvarez jaunak, ondare erantzukizuneko eskaria egin zion Udalari 2003ko martxoaren 18an. Zehazki, Bordaenea kalean bere motorrak inoiz bidean zeuden harri-kozkorrek inoiz irristatu eta erori zenean bere ziklomotorrak jasandako kalteengatik.

Eskaria osatu gabe zegoenez, Udalak osatzeko eskaria egin zion 2003ko apirilaren 1ean, osatu ezean espedientea artxibatuko zela ohartaraziz.

Beraz legeak (1) aurreikusten duen bezala, Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Espedientea iraungitzea eta beraz orain arte egindako jarduketa guztiak artxibatzea.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

(1) 1992ko azaroaren 26ko Legea, Prozedura Administratiboari buruzko Legearen 92. artikulua.

#### **G) Julio Blas Cascante Sarasola jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Julio Blas Cascante Sarasola jaunak ondare erantzukizuneko eskaria egin zion Udalari 2003ko urtarrilaren 31ean. Zehazki, haize bortitza zegoela eta zakarrontzi batek bere kotxea (SS-6109-AX) kolpatu eta kaltetzeagatik.



Eskaria osatu gabe zegoenez, Udalak osatzeko eskaria egin zion 2003ko apirilaren 14an, osatu ezean espedientea artxibatuko zela ohartaraziz.

Beraz legeak (1) aurreikusten duen bezala, Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Espedientea iraungitzea eta beraz orain arte egindako jardunketa guztiak artxibatzea.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

(1) 1992ko azaroaren 26ko legea, Prozedura Administratiboari buruzkoaren 92. artikulua.

#### **H) Luis Jesús Barbarin Jurio jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

Luis Jesús Barbarin Jurio jaunak ondare erantzukizuneko eskaria egin zion Udalari 2003ko maiatzaren 12an, haize bortitza zela eta, Udal zakarrontzi batek bere kotxea kolpatzean eginiko kalteagatik.

Zerbitzuetako sailak eginiko txostena eta Udaltzaingoak eginiko atestaturia aintzat harturik frogatuztat ematen da gertaerak eskatzaileak adierazi bezala izan zirela. Bestalde, eskatzaileak aurkezturiko faktura ibilgailuak izandako kalteak konpontzeagatik 331,52 eurokoa da. Hortaz, aurreko guztia kontuan, Gobernu Batzordeak aho batez zera

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Baiestea Luis Jesús Barbarin Jurio jaunak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria eta horren arabera 331,52 euroko kalte-ordaina ordaintzea.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

#### **I) María Delia Lamas Seco andreak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

María Delia Lamas Seco andreak ondare erantzukizuneko eskaria egin zion Udalari Azkueneko parkean izandako erorketagatik. Aintzat harturik Zerbitzuetako sailak egindako txostena eta kontuan izanik eskatzaileak ondo ezagutzen duela gertaera-lekua eta beraz zein den bere egoera. Bestetik, zuloa ez da batere sakona, ikusteko erreza da eta azkenik, aipatzen ari garen lekua ez da pasatzeko leku bat zokoratutakoa baizik, Gobernu Batzordeak aho batez zera



ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Ezestea Maria Delia Lamas Seco andreak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria goian aipaturiko arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

**J) María Elena Ruiz de Eguino Arruti andreak eginiko ondare erantzukizuneko eskaria.**

María Elena Ruiz de Eguino Arruti andreak ondare erantzukizuneko eskaera egin zion Udalari Gure Zumardian zuhaitz batentzat eginiko tartean erortzean izandako zauriengatik.

Salaketa horretaz Udaltzaingoan ez dago inongo berririk. Bestalde, erorketa uztailaren 13an gertatu bazen ere, abuztuaren 6ra arte ez genuen inongo berririk izan, eta eskatzaileak ez du lekukoen idatzitako aitortzarik aurkeztu nahiz eta Udalak horrela egiteko aukera eman dion.

Azkenik, kontuan hartzekoa da erorketaren lekua egoera onean dagoela, argi eta garbi ikusten dela, eta are gehiago, gertaera egunez izan zenez gero; beraz, hau guztia kontuan, Gobernu Batzordeak zera

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA.- Ezestea María Elena Ruiz de Eguino Arruti andreak eginiko ondare erantzukizuneko eskaera goian aipaturiko argudioengatik.

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea, beronen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri emanez.

- Gaizerrendatik at eta aurrez bertan sartzea bertako zinegotzien aho batez berretsirik, hurrengo akordioak hartu dira:

**GIZARTE ZERBITZUAK**

**13.- Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko Laguntza Ekonomikoak. 5/03 zka. daraman Proposamena.**

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2003ko abenduaren 19an egindako proposamena, eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdiko onuradunen zerrenda, bertako zinegotzien aho batez erabaki da ONTZAT EMATEA espedientean aipatzen diren onuradunen Laguntzak

14.403,00 euroko inportez. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1482/03 Baimenduaren kargura.

**14.- Subentzioak banatzea: herri mailako promozio programa 044813135001 zka. daraman partida.**

Behin azterturik 2003ko jarduerentzat subentzio-eskaerak eta ikusirik Alorreko Teknikari Arduradunak egindako txostena, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D A

LEHENENGO.- Aipatzen diren Elkargoei hurrengo subentzioak eman dira:

- ACABE	400,00 euro
- DONANTES DE SANGRE	1.460,00 euro
- ESCLEROSIS MULTIPLE	300,00 euro
- ATZEGI	1.264,00 euro
- ASFAMOGI	300,00 euro
- CUIDADOS PALIATIVOS	1.200,00 euro
- HOMENAJE VEJEZ MARINO	150,00 euro

GUZTIRA 5.074,00 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1480/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

**15.- Subentzioak banatzea: herri mailako gizarte promozioaren programa 044813135001 zka. daraman partida.**

Behin azterturik 2003ko jarduerentzat subentzio-eskaerak eta ikusirik Alorreko Teknikari Arduradunak egindako txostena, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D A

LEHENENGO.- Aipatzen diren Elkargoei hurrengo subentzioak eman dira:

**Emakumea:**

- KATTXALIN	300,00 euro
- LAGUN ARTEA	1.200,00 euro
- AZKUENE	1.500,00 euro

GUZTIRA 3.000,00 euro

**Prebentzioa eta gizarteratzea**

- ASCODEL	1.200,00 euro
- EKINTZA DA SALUD	500,00 euro
- FUNDACION IZAN	1.400,00 euro
GUZTIRA	3.100,00 euro

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1479/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

**16.- Subentzioak banatzea: garapen kooperazioaren programa 044813135002 zka. daraman partida.**

Behin azterturik 2003ko jarduerentzat subentzio-eskaerak eta ikusirik Alorreko Teknikari Arduradunak egindako txostena, bertako zinegotzien aho batez

**E R A B A K I D A**

LEHENENGO.- Aipatzen diren Elkargoei hurrengo subentzioak ematea 6.300,00 euroko inportez:

- A.D.E.C.O. “Amen elkarteekin promozio eta garapena” Proiektua Peru..... 1.140,00€
- TAUPADAK. “CPDMB Mugimendu indigena amazoniarraren garapena” proiektua ..... 1.140,00€
- MANOS UNIDAS. “Okupazio Formazioa eraikitzea” proiektua Peru ..... 1.140,00€
- ILLIAMANI ONG. “Proiektu sozio-educatiboa Ribera Alta udalerrian” Beni (Bolivia) ..... 1.140,00€
- ADT. Hirugarren munduan Ekintza eta Garapena. “Nekazariarentzat ureztatzeko 6 putzuren proiektua” (Dediapada – India) ..... 1.140,00€
- ASKAPENA. Komunitate irratiaeren proiektua “Al son del 23” ..... 300,00€
- UNICEF. Herrien festa 2003..... 300,00€



GUZTIRA

6.300,00€

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1481/03 Baimenduaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuei ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

### **17.- Euskal Fondoari subentzia.**

Ikusirik subentzio-proposamena Gizarte Zerbitzuen Zinegotzi delegatuak 2003ko abenduaren 18an aurkeztua, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

## ERABAKI DU

LEHENENGO.- EUSKAL FONDOARI SEI MILA EHUN ETA BERROGEITA BOST EURO ETA HOGEITA BOST ZENTIMO (6.145,25 euro) hurrengo proiektuentzat:

### **1. proiektua.-**

Guisako hiria urez hornitzea, Granmako probintzian (Kuba).....1.264,73 euro.

### **2. proiektua.-**

Garraioaren azpiegitura gehi difusioa Saharan apoiatzea.....4.880,52 euro.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko 04.481.313.50.03 paertidaren kargura.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiekeen errekurtsioekin.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 13:45ak direnean, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau andre Alkateak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.